

Aditz morfologiari dagozkion galderetan morfologia eta erabilera hartu dira kontuan lekukoek emandako formak erantzuntzat onartzean. Adibidez, 90360 galderan (1300. mapan) **edin* aditzaren ahalerazko 'hura' pertsonaren adizkiak galdetzean *daiteke*, *deteke*, *daike*, *leike* eta antzeko forma jokatu ez gain, *-tzen ahal da*, *gerthatzen al da*, *heltzen ahal lükezü*, *eskapa ahal leiteke* eta antzekoak ere onartu egin dira, gauza bera adierazteko formak izanik. Datuak biltzean indar berezia egin da bilatzen zen adizkia lortzeko, baina ez dira baztertu ekintza bera adierazteko gainerako formak. Berdintsu jokatu da 3 argumentudun adizkiak bilatzeko galderetan 2 argumentudunak biltzean; adibidez, 91310 galderan (1381. mapan) **edun* aditzaren orainaldiko 'hark-hura-zuri' formak bilatzean *dizu*, *dotzu*, *tzu*, *dautzu*, *deizu* eta antzeko adizkien ondoan *zaitu* adizkiaren kasuan.

Subjuntiboetako adizkiak biltzean, helburua aditz jokatu formak biltzea zen arren, noizbehinka herri batzuetan ez da lortzerik izan; halakoetan aditz nominalizatuak onartu egin dira. Ikus adibidez, 91070 galderan (1362. mapan) Hegoaldeko herri zenbaitetan bildu den erantzun bakarra *eitteko* etiketa ezarri zaion aditz nominalizatu baina ez da jaso.

1.9. Mapak

Bi motatakoak izan daitezke galdera bateko mapak: handia, beti agertzen dena, eskuin aldeko orrialdean, eta txikia, batzuetan baizik agertzen ez dena, ezkerreko orrialdean, eskuineko aldean. Adibidez, 91280 galderan (1378. mapa) mapa handiaz gain mapa txikia ere azaltzen da 'haiek' pertsonaren morfema desberdinen hedadura erakusteko.

1.9.1. Mapa handia

Mapa handian, moldatzaileak erantzunetan aurkitu dituen kontraste handienak agertzen dira.

Kontraste nagusi horiek koloreen bidez seinalatzen dira bereziki, baina muga jakin batekin: 16 kolore baino gehiago ezin daitezke baliak, eta 12 kolore baliatuz hasten dira kontrasteen agerrarazteko zailtasunak (askotan elkarri hurbilak diren erantzunak hurbileko koloreen bidez seinalatuak dira, baina joera hori ez da beti konplitu ahal izan).

Mapak, beraz, datuei egiten zaien irakurketa bati dagozkio bakarrik, eta nola eratuak izan diren gogoan izan behar du irakurleak, erantzunak sailkatzeko erabili diren urratsak, orain adierazten direnak, kontuan edukiz, bereziki.

1.9.2. Mapen eratzeko baliaturiko erantzunen sailkapena

Kontraste handienak agerrarazteko erantzunetan sailkapen bat egin du moldatzaileak:

- Erantzun hurbilak
- Lemak
- Superlemak

Erantzun hurbilak dira erantzun gisa agertzen diren formak, ortografia arruntean transkribaturik. Hauetan azentuari dagokion informazioa galtzen da, eta ortografia arrunteko kodea baliatzen baita, beste zenbait informazio ere (ortografia arruntean zeinu berezirik ez duten segmentuei dagokiena bereziki). Adibidez, 91280 galderan [djôte] eta [diote] > "diote". Ikus transliterazio taula.

Lemak erantzun hurbilak multzoka bilduz moldatzen dira. Lema hitzak adiera berezia hartzen du langintza honetan: erantzunak sailkatzerakoan egiten den lehen mailako multzokatzeari baitagozkio hemen lemak deitzen diren formak, edonola izan daitezkeen. Sailkatze horretan baliatzen den abstrakzio maila guztiz aldakorra izanik erantzunen arabera, ez da beti bilatu behar lexikografian lema hitzak duen ohiko adiera. Adibidez, *deioie* eta *deie* lema desberdinak izan daitezke.

Superlemak lemak multzoka bilduz osatzen dira abstrakzio maila goratuz. Hauek mapen azpian ezkerreko aldean zerrendaturik agertzen dira, mapetako koloreak haien arabera banatzen direlarik.

Abstrakzio maila desberdinak erabiltzen dira superlemetan ere, noiz nola. Adibidez, mendebaldeko hizkeretan *nion/neutsan* adizkiaren *neutzan* superleman bildu dira ondoko lemak: *neuntzan, neutzan, nontzan* eta *notzan*, leman hauen azpian erantzun hurbil gehiago direlarik.

Kontuan izan behar du irakurleak, sailkatze horiek datuen interpretazio bati dagozkiola, eta haien araberako itxura izaten dutela mapek. Mapen koloreak, beraz, ez dagozkio beti erantzun hurbil bati, eta ondorioz nahikoa desberdinak izan daitezke superlema beraren pean biltzen diren erantzunak. Hain zuzen horregatik aurkitzen da liburuaren hondarrean superlemen indexa.

Galdera askotan, erantzunen barriaduragatik, hamabost superlema eratu dira lema guztiak haietan sailkatu gabe. Horrelako kasuetan, sailkatu gabe gelditu diren lementzat, superlema mota berezi bat, *bestelakoak* deitua (eta beti kolore bera duena, esan nahi baitu gris nabarra) sortu da. Hartan, beraz, hedadura handiagoko superlemetan sartzen ez diren gainerako formak biltzen dira eta haien zerrenda ohartegian ematen da (ik. 1.9.5.).

1.9.3. Mapa handiaren oinarria eta koloreak

Galdera bakoitzari badagokio eskuineko orrialdean mapa bat, honen oinarria beti bera baita. Oinarri horretan inkesta lekuen izenak laburduraren bidez adieraziak dira. Mapa handia esaten diogu horri, zeren mapa txikiago bat agertzen ahal baita ezkerreko orrialdean batzuetan.

Euskararen eremua estaltzen duen mapa horretan inkesta lekuak agertzen dira beren arteko muga poligonalekin (ez geografikoak, ez administratiboak eta ez linguistikoak, baina Thiessen-en poligonoen bidez sortuak). Horrela inkesta leku bakoitzak badu mapan eremu bat, artifiziala segurki, baina mapagintzako lanak egiteko baliagarri gertatzen dena. Irakurleak, haatik, kontuan izan behar du sinplifikazio hori, eta gogoan atxiki erantzunak ez dagozkiola eremu bati, baina

inkesta leku zehatz bati.

Inkesta leku bakoitzean hiru erantzun mapara daitezke: bi zuzeneko erantzun eta erantzun proposatu bakar bat.

Azken hauek, biribil baten bidez seinalatzen dira, beste biak eremu guztia baliatuz:

- eremuko zola zehar marrarik gabe koloreztatua bada erantzun bakarra bildu da;
- eremu batean zolako kolorearekin batean zehar marrak agertzen badira, bi erantzun gutxienik bildu dira eremu horri dagokion herrian. Zehar marrek duten koloreari dagokio bigarren erantzuna.

Adibidez, inkesta leku batean 'ipar haizea'rentzat *norte aize* eta *iparraize* erantzun gisa bildu badira eta hango berri emaileak *peko aire* ere herriko forma gisa onartu badu, herri hura mapan agertuko da *norteko aize* erantzun hurbila sailkatua izan den superlemaren kolorearekin; *iparraize* erantzuna sailkatua izan den superlemaren koloreko zehar marrekin, eta azkenik, biribil bat ere izanen da *peko aire* erantzunari dagokion superlemaren kolorekoa (ikus I. liburukiko 224. mapan Makeako datuak).

Kolorerik gabe agertzen bada eremua, erantzunik zuzenik ez da bildu herri horretan.

Irakurlearen lagungarri, mapa gehienetan koloreez gain, mapa moldatzaileak superlemak, lemak edo erantzunak idatzi ditu mapen gainean; ikus adibidez I. liburukiko 1. mapa.

1.9.4. 'Maparatu ez diren erantzunak' deitu laukia

Ezker aldeko orrialdean, '**Maparatu ez diren erantzunak**' deitu laukia agertzen da batzuetan. Haren barnean agertzen dira herrika mapan sartu ahal izan ez diren erantzunak, zuzenekoak edo proposatuak.

1.9.5. Leienda eta oharrak

Mapa bakoitzaren pean agertzen da, ezker aldean, leienda; honen eskuin aldean, oharregia.

Leiendan superlemen zerrenda aurkitzen da, bakoitzari dagokion kolorea seinalatzen delarik.

Oharregian bi ohar mota bereizten dira. Lehenik datoz, ezker aldean, ohar orokorrak deituak. Hauek galderari berari, edo erantzunen sailkatzeari dagozkion oharrak dira. Ohar etnolinguistikoak ere ager daitezke hor, bai eta *bestelakoak* deitu superlemari dagozkion erantzunak (ik. 1.9.2.). Gero, eskuin aldean, herrika emanak diren oharrak; hauetan, lehenik inkesta lekuaren izena agertzen da, eta ondotik oharra, maizenik transkribatzaileak edo lekukoak, gutxiagotan moldatzaileak, egin duena.

1.9.6. Mapa txikia

Erantzun zerrendaren orrialdean, eskuin aldeko beheko aldean agertzen da batzuetan *mapa txikia* deitua izan dena.

Mapa txikiaren helburua da galderari dagozkion aurkaritza nabarmenenak agerian ematea. Joera handi batzuen markatzeko da, beraz, maiz erantzun batzuk baizik kontuan hartzen ez direlarik. Mapa txiki hori ez da orotan egin, zerbait azpimarragarri gisa horretan azaltzekoa zena ikusi denean baino (ikus 1081. mapa, 90060 galderari dagokiona).

1.10. Seigarren liburuko indexak, laburdurak eta ikurrak

1.10.1. Indexak

Mapen ondotik, liburuaren hondar partean, bi index aurkitzen dira: superlemen indexa eta erantzunen indexa.

Superlemen index hau beharrezkoa izan daiteke jakiteko zer sailkapen egin

duen moldatzaileak galdera bateko mapa egiteko. Mapagintzari dagokion atala da, beraz, index hau.

Bestalde, irakurleak EHHAn bildu diren berbak eta formak zuzenean kontsultatzeko erantzunen indexa ere sortu da, non mapetan lantzen diren galderetako erantzun guztiak biltzen diren alfabeto ortografikoan. Beraz, forma bat atlasean bildu izan den jakiteko baliatuko da bereziki index hau.

1.10.2. Erantzunetako laburdurak eta ikurrak

- **(mark.):** laburdura hau erantzunen atzean erabiltzen da, erantzuna izena edo ize-nondoa izanik mugagabe ez dela jaso seinalatzeko; erantzuna aditza denean ere baliatua izan da bildutako forma partizipio burutuari ez dagokiola seinalatzeko.

- * eta *italikaz:* izarñoa eta letra etzana baliatu dira erantzun proposatuen seinalatzeko.

1.10.3. Mapetako kolore sinbolikoak

Koloreak arbitrarioki hautatuak dira mapetan, salbu bi kasutan: kolore zuria, eta kolore gris nabarra.

- Kolore zuria: mapan kolore zuriak adierazten du inkesta leku horretan erantzunik ez dela jaso, edo galdera hori ez dela egin.

- Kolore gris nabarra: *bestelakoak* deitu superlemari ematen zaion kolore neutroa da (ik. 1.9.2.).

1.10.4. Superlemetako laburdurak

XXX (-) : Superlema horretan XXX forma agertzen da hutsik, edo beste morfema bat darraiola (atzizkia edo lexema). Adibidez, aramu (-) superleman **aramu**, *aramontoki* eta *aramusare* lemak.

(-) XXX : Superlema horretan XXX forma agertzen da hutsik, edo beste morfema bat aurrean duela. Adibidez, (-) **sasu** superleman laparsasu eta sasulak agertzen dira besteak beste.

(-) XXX (-) : Superlema horretan XXX forma agertzen da, aurretik edo atzetik beste